

## IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

*HE1*

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrenetatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

**1 Ez horrelakorik egin! Oso gaizki ..... horrelako gauzak erakustea seme-alabei.**

- a) legoke
- b) leudeke
- c) egongo zen
- d) egongo liteke

**2 ..... bertsogintzan ez dakit, baina paperean idazten ona da hori.**

- a) Bat-bateko
- b) Ahoz ahoko
- c) Aldez aurreko
- d) Egun bateko

**3 Zuek ez dakit, baina guk badaukagu .....**

- a) zer egin.
- b) zer egiterik.
- c) zer egiteko.
- d) zer egitea.

**4 Badira gizon eta emakume jator askoak .....**

- a) liburuak maite dituztela.
- b) liburuak maite dutenak.
- c) liburuak maite dituztenak.
- d) liburuak maite dituenak.

**5 "Hara! Nor etorriko eta zu!" Zer esan nahi du?**

- a) Ez dakiela nor den.
- b) Ustekabean iritsi dela.
- c) Bat-batean joango dela.
- d) Nahigabean iritsi dela.

**6 Zu ez dakit joango zaren, baina .....**

- a) ni neu, gutxienez, banoala.
- b) ni neu, gutxienez, noski banoa.
- c) ni neu, behintzat, banoa.
- d) ni neu, behintzat, bai noala!

**7 Liburu hori ez dago ondo hor; .....**

- a) tokia aldatu behar dut.
- b) tokiz aldatu behar dut.
- c) tokitik aldatu behar dut.
- d) tokiz aldatu behar diot.

**8 Lizaso eta Egaña, ..... irudimentsuago.**

- a) nor baino nor
- b) bata bestea
- c) batak besteak baino
- d) nor edo nor

**9 "Zer berri?" Aukeratu erantzun egokia.**

- a) Jakina baietz!
- b) Zaharrak berri!
- c) Hortxe-hortxe!
- d) Baita zuri ere!

**10 Zein dago GAIZKI?**

- a) Ederra umea!
- b) Polita da oso!
- c) Horixe bai liburu eskasa!
- d) Hauxe baietz hiri itsusia!

**11 Zein da gramatikalki zuzena?**

- a) Ez ditut libururik erosi.
- b) Etxean ez dago zer jatekorik.
- c) Etorri zen neskari ikusi genuen.
- d) Hori ez daukagu zertan egin.

**12 Zein EZ DA sail berekoa?**

- a) Etsipena
- b) Kemena
- c) Adorea
- d) Ausardia

**13 Bankuko kreditua ehuneko ..... utzi didate.**

- a) 5an
- b) 5n
- c) 5ean
- d) 5en

**14 Hegazkinean nindoala, zorabiatu eta ..... sentitu nuen.**

- a) beheraka
- b) gorabehera
- c) berezkoa
- d) ondoeza

**15 "Txapel batekin ezin bi buru estali". Zer esan nahi du?**

- a) Aldi berean ezin bi gauza egin.
- b) Aldi berean ezin bi lagun egin.
- c) Aldi berean ezin bi txapel erabili.
- d) Txapel guztiak dira bereziak.

**16 Irakurri dudaren ....., hori gezurra da.**

- a) moduan
- b) arabera
- c) bezala
- d) adina

**17 "Joan den asteburuan Pirinioetan izan ginen; eta zuek?" Aukeratu erantzun egokia.**

- a) Geu joan egin ginen ere.
- b) Bai, izan egin ginen ere.
- c) Ere baita.
- d) Geu ere bai.

**18 Ez duzue asmatuko .....**

- a) ezta bat!
- b) inola ere ez!
- c) inondik inora ere!
- d) ezta ezer!

**19 "Lana amaitu nuen eta zinemara joan nintzen".  
Bilatu baliokidea.**

- a) Lana amaitzear zinemara joan nintzen.
- b) Lana amaitzez gerotan zinemara joango nintzen.
- c) Lana amaitutakoan zinemara joan nintzen.
- d) Lana amaitzerako zinemara joan nintzen.

**20 Dosiak egiten du pozoia; ....., neurriz gain  
hartutako dosiak dira pozoiak.**

- a) hala ere
- b) ordea
- c) alabaina
- d) hau da

**21 Defentsarako ....., ehizarako ere erabiltzen dute  
pozoia animaliek.**

- a) izan gabe
- b) ez ezik
- c) ezean
- d) izan ezik

**22 Iritsi da irakaslea .....**

- a) bere apunte eta guztiarekin.
- b) bere apunteak eta guztiz.
- c) bere apunte eta guzti.
- d) bere apunteekin eta guztiz.

**23 Animalien osasuna zaintzen duena ..... da.**

- a) albistaria
- b) abelgorria
- c) abeltzaintza
- d) al baitaria

**24 Eskertzekoa da atzo Arartekoa Hondarribiko  
alardera .....**

- a) joatera.
- b) joan izana.
- c) joatekoa.
- d) joan izatekoa.

**25 Finalera iristeko, gaurko partida ..... izan da.**

- a) galkorra
- b) erantzulea
- c) jokatzailea
- d) erabakigarria

**26 Zein dira ANTONIMOAK?**

- a) atsedena / geldialdia
- b) kakanarrua / gizontzarra
- c) gakoa / giltza
- d) parekatu / alderatu

**27 Non dago ortografia AKATSA?**

- a) Eutsi
- b) Etzi
- c) Etsi
- d) Etzai

**28 "Eskerrak amak egin duela!" Zer esan nahi du?**

- a) Amak eskerrak eman dituela.
- b) Amak eskerrak eskatu dituela.
- c) Amak egin duela zerbait, zorionez.
- d) Amak ez duela ezer egin.

**29 Soineko hau ..... zegoen salgai merkealdian.**

- a) 6 euroatik
- b) 6 euroaz
- c) 6 euroetan
- d) 6 eurotan

**30 Aurten hainbat ..... eskariak jaso dituzte.**

- a) langileren
- b) langilearen
- c) langileen
- d) langiletakoren

**31 Entzun, alabatxo alfer hori: eskolako lanak .....**

- a) egiteak nahi ditut.
- b) egitea nahi ditut.
- c) egiteak nahi dut.
- d) egitea nahi dut.

**32 Mikel da ..... irakurri duena.**

- a) hobein
- b) onago
- c) hobetoago
- d) ondoen

**33 Nola idazten da 2.853?**

- a) Bi mila zortzirehun eta berrogeitamahiru.
- b) Bi mila zortziehun eta berrogeita hamahiru.
- c) Bi mila zortziehun eta berrogei eta hamahiru.
- d) Bi mila zortzirehun eta berrogeita hamairu.

**34 Zein EZ DA egokia?**

- a) Dirua xahutu zuen.
- b) Dirua kudeatu zuen.
- c) Dirua kamustu zuen.
- d) Dirua aurreztu zuen.

**35 "Irakasle horrek ziria sartu digu". Zer egin du?**

- a) Lagundu
- b) Engainatu
- c) Iraindu
- d) Haserretu

**36 Lagunari afaria ordain .... ematen dizut dirua.**

- a) diezaiozun
- b) diezaiezun
- c) diozun
- d) dakiozun

**37 Aurten ikasgelako ..... zazpik alde egin dute.**

- a) mutiletatik
- b) mutilengandik
- c) mutileetatik
- d) mutileko

**38 Garrantzitsua da ..... begirunea.**

- a) gurasoenganako
- b) gurasoengatik
- c) gurasoei
- d) gurasoengana

**39 Gaurko hitzaldiarekin aurrera jarraitu aurretik, ..... nor den Lizardi.**

- a) argitzen dut
- b) argituko naiz
- c) argi dezadan
- d) argituko nuen

**40 Horiek beti ..... hitz goxoak botatzen.**

- a) elkar
- b) elkarri
- c) elkarren
- d) elkarrek

**41 Non dago ortografia AKATSA?**

- a) atzo / atso
- b) etzi / etsi
- c) hurbil / hurrun
- d) hotsa / hotza

**42 "Amama Kuban dago, egotez". Zer esan nahi du?**

- a) Kuban dagoela orain.
- b) Han egon zela, baina ez jada.
- c) Beti Kuban pentsatzen dagoela.
- d) Sarritan joaten dela hara.

**43 Aukeratu ondo dagoena.**

- a) Deituko dizudanean etorriko zara.
- b) Deituko dizudanean etortzen zara.
- c) Deitzen dizudanean etorriko zara.
- d) Deitzen dizudanean etorri zara.

**44 Zuk garratz dagoela diozu. Nik kontrakoa esango nuke, ..... dagoela.**

- a) gozo
- b) mingots
- c) geza
- d) samin

**45 Nobela horretan ..... aipatzen dira.**

- a) lelokeria handiak
- b) lelokeri handiak
- c) lelokeriak handiak
- d) lelokeriarik handiak

**46 "Julen bere onetik irtenda dabil". Zer adierazi nahi da?**

- a) Bere onenak emanda dagoela.
- b) Haserre dabilela.
- c) Ez dagoela sasoian.
- d) Esker onekoa dela.

**47 "Zer moduz osasunez?" Aukeratu erantzun DESEGOKIA.**

- a) Ondo samar.
- b) Ondo esan beharko.
- c) Baita nahi ere.
- d) Hortxe-hortxe.

**48 Ona da atseden hartzea; oso ona, ...., lan egitea.**

- a) halaber
- b) ere
- c) hain zuzen
- d) alabaina

**49 Aitak uzten ez badit ..... ahaleginduko naiz zuekin harremanetan .....**

- a) irteteko / jartzeko.
- b) irteteari / jartzeaz.
- c) irtetea / jartzean.
- d) irteten / jartzen.

**50 "Zirt edo zart egin beharra dago". Zer esan nahi du?**

- a) Eztabaida hobeto bideratu nahi dutela.
- b) Ukitutako puntuak zehaztuko dituztela.
- c) Erabakiak hartzen hasiko direla.
- d) Gai sakonak aztertuko dituztela.

**51 Ea badakien galdetzeko.**

- a) Dakizu ezer?
- b) Jakintsu zaude?
- c) Jakinaren gainean zaude?
- d) Horren berri zara?

**52 "Hotsa" zein zentzumenekin nabaritzen duzu?**

- a) Ikusmenarekin
- b) Ukitumenarekin
- c) Entzumenarekin
- d) Dastamenarekin

**53 "Txakurra geurea izan arren, ez zidan bada kosk egin!" Zer egin zuen?**

- a) Kosk egin zidan.
- b) Ez zidan kosk egin.
- c) Kosk egiteko zorian egon zen.
- d) Txakurra ez zen agertu.

**54 Elkarrekin joan ginen tren .....**

- a) beran.
- b) berean.
- c) berdinean.
- d) bertan.

**55 Joxe Ramon ..... joan eta Guatemalan hil zen.**

- a) misiolari
- b) misiolariz
- c) misiolaria
- d) misiolaritzat

**56 Zeinek EZ DU zarata adierazten?**

- a) Burrundarak
- b) Zalapartak
- c) Zaramak
- d) Orroak

**57 Datorren urtean kirol mota gehiago proposatuta, ez dakigu zenbat apuntatuko .....**

- a) ziren.
- b) liratekeen.
- c) litezkeen.
- d) luketen.

**58 Zein EZ DA sail berekoa?**

- a) Izterra
- b) Orkatila
- c) Ukabila
- d) Belauna

**59 Zein hitzek behar du "a" berezkoa amaieran?**

- a) Sorgin
- b) Gordin
- c) Urdin
- d) Burdin

**60 "Etorriko zara gaur afaltzera?" Zein da erantzun DESBERDINA?**

- a) Jakina!
- b) Bai horixe!
- c) Tira!
- d) Joango ez naiz, bada!

**61 "Enpresaburuoi asko ardura digu bakea lortzeak".**

- a) Bost axola diela.
- b) Garestia iruditzen zaiela.
- c) Askok kezkatzen dituela.
- d) Arduradun nagusiak direla.

**62 "Hasieran gehienei arrotz egiten zaie bertsolaritza". Zer adierazi nahi du?**

- a) Askok ez duela ezagutzen.
- b) Atzerritarren kontua dela.
- c) Nornahik ezagutzen duela.
- d) Ez dagoela zer den ez dakienik.

**63 Egoera latz haren aurrean ..... egitea egotzi zioten irakasleari.**

- a) ezer
- b) ezer ere ez
- c) zer edo zer
- d) zerbait

**64 Udazkenean ..... pasatuko dira hemendik.**

- a) milaka eta milaka uso
- b) milana uso
- c) milaka usoak
- d) mila eta mila usoak

**65 Gertaera bat uste bezain txarra EZ DELA adierazteko esapidea.**

- a) Zorionak!
- b) Gaitz erdi!
- c) Hori duk eta!
- d) Hori zoritxarra!

**66 Eskularruak jantzi ..... eta gero goxo-goxo ibili nintzen.**

- a) behar nituen
- b) behar izaten nuen
- c) behar nuen
- d) behar izan nituen

**67 "Bizimoduak alde guztietan ematen du galtzak bete lan". Zer adierazi nahi du?**

- a) Bizia ez da erraza.
- b) Lanerako galtzak erabili behar.
- c) Bizitzeko, galtzak ondo bete.
- d) Bizimoduak asebetetzen gaitu.

**68 Zein da zuzena ortografia aldetik?**

- a) Zihur nago ez duela hutsunerik atzemango.
- b) Ziur nago ez duela hutzunerik atzemango.
- c) Zihur nago ez duela utsunerik atzemango.
- d) Ziur nago ez duela hutsunerik atzemango.

**69 Bi autok aurrez aurre ..... egin eta bi lagun hil dira.**

- a) tinko
- b) kinka
- c) zurrut
- d) talka

**70 Eutsi nahi izan ..... baina ihes egin ..... .**

- a) dugu / du
- b) diogu / digu
- c) dugu / zaigu
- d) diogu / zaigu



## ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK

### HE1

|    |   |    |   |    |   |    |   |    |   |    |   |    |   |
|----|---|----|---|----|---|----|---|----|---|----|---|----|---|
| 1  | A | 11 | D | 21 | B | 31 | D | 41 | C | 51 | C | 61 | C |
| 2  | A | 12 | A | 22 | C | 32 | D | 42 | A | 52 | C | 62 | A |
| 3  | A | 13 | C | 23 | D | 33 | B | 43 | C | 53 | A | 63 | B |
| 4  | C | 14 | D | 24 | B | 34 | C | 44 | A | 54 | B | 64 | A |
| 5  | B | 15 | A | 25 | D | 35 | B | 45 | A | 55 | A | 65 | B |
| 6  | C | 16 | B | 26 | B | 36 | A | 46 | B | 56 | C | 66 | D |
| 7  | B | 17 | D | 27 | D | 37 | A | 47 | C | 57 | B | 67 | A |
| 8  | A | 18 | C | 28 | C | 38 | A | 48 | A | 58 | C | 68 | D |
| 9  | B | 19 | C | 29 | D | 39 | C | 49 | D | 59 | D | 69 | D |
| 10 | D | 20 | D | 30 | A | 40 | B | 50 | C | 60 | C | 70 | B |